




Elur-antzara

Paul Gallico



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

<http://www.booktegi.eus/>



Jatorrizko izenburua: “The Snow Goose”
© Mathemata A.G. 1941

Itzulpena – Ane Urrestarazu
© Hamaika Books

Ilustrazioak – Aitziber Alonso
© Hamaika Books

Diseinua eta maketazioa – eragin.com

ISBN – 978-84-939883-0-2



Elur-antzara

Paul Gallico

Bigarren Mundu Gerran, Britainia Handia eta Frantzia Nazien Alemaniaren aurka borrokatu ziren.

1940ko ekainean, Alemaniako armadak hondartza batean inguratuta izan zituen britainiarrak eta frantziarrak; zehazki, ipar-ekialdeko Frantzian, Dunkirken. Gernikarako asmatutako bonbardaketa teknikak erabili zituzten, ahalik eta britainiar eta frantziar gehien hiltzeko.

Britainiarrek ez zuten gerraontzi nahikorik soldaduak etxera eramateko eta, horregatik, 700 bat itsasontzi txiki joan ziren haien bila, Ingalaterratik. 300.000 gizon baino gehiago salbatu zituzten Dunkirketik.

Gure istorioa Ingalaterrako hego-ekialdean hasten da, Dunkirketik 160 bat kilometrora.

1.

Lokazti Handia Essex konderriko kostaldean dago, Chelmbury herrixkaren eta saxoiek¹ sortu zuten Wickaeldroth ostra-arrantzaleen auzoaren artean. Ingalaterrako azken leku basatietako bat da. Lurrealde baxua da, oso eremu zabala. Gatzaga handiek, lokatz lautadek eta itsasaldiek sortzen dituzten putzuetaraino heltzen dira hango belarrak, ihiak eta erdi murgildutako zelaiak. Handik gertu, itsaso geldiezina dago.

Itsasaldiek sigi-saga egiten duten errekatxoak sortzen dituzte, eta urez beteta dauden zelaietan zabaltzen dira. Ematen du zelai horiek gora eta behera egiten dutela itsasaldiekin batera eta, aldi berean, lurra arnasa hartzen duela. Iluna da lurraldea, erabat bakartua. Lokaztietan eta gatzagetan bizi diren hegaztien ahotsek eta oihuek areagotu egiten dute bakardade hori. Antzarak, kaioak, zertzetak, ahate txistulariak, bernagorriak eta kurlintak dira, eta putzuz putzu ibiltzen dira. Animaliak baino ez dira bizi, eta ez da inor ikusten, noiz edo noiz agertzen diren ehiztariak eta ostra-arrantzale batzuk izan ezik. Saxoiek han harrapatzen zituzten ostrak normandiarrak Hastingsera² iritsi baino lehen.

Hango koloreak grisak, urdinak eta berde apalak dira. Zerua ilun dagoenean, negu luzeetan, hondartzetan eta lokaztietan dauden urek zeruaren kolore hotza eta ospela islatzen dute. Baina, batzuetan, egunsentietan eta iluntzeetan, zerua zein lurra sutan egoten dira, su gorriak eta urre kolorekoak argituta.

Aelder ibai txiki eta bihurriaren ondoan, itsas lubeta zahar bat dago. Sendoa eta leuna da; ez du arrakalarik. Lurra inbaditzen dituen itsasoaren aurkako gotorlekua da. Ipar Itsasotik bost bat kilometrorra dagoen gatzaga batean barrena doa; han biratu, eta iparralderantz jarraitzen du. Gune hartan, lubeta zuloz beteta dago, apurtuta eta birrinduta. Itsasoak, arraildura horietatik sartu, eta suntsitu egin du lubeta. Lurra, lubeta eta han zegoen guztia bere egin du itsasoak.

Itsasbeheretan, itsasargi abandonatu baten harri belztu eta apurtuak ur-azalean agertzen dira, baita buiak bezala apurtzean dauden zuresien puntak ere, han-hemenka. Garai

¹V. mendean, Saxoiek Britainia inbaditu eta Ingalaterra sortu zuten.

²1066an, normandiarrek Hastingseko bataila irabazi zuten, Ingalaterrako hegoaldean, eta, garaipen horrekin, herrialdea konkistatu zuten.

batean, itsasoaren ondoan zegoen itsasargia, eta Essexeko kostaldeko alarma-argietako bat izan zen. Lurra eta itsasoa mugitu egin ziren, denboraren poderioz, eta itsasargia orain ez da erabiltzen.

Azkenaldian, bizileku bihurtu zen berriro. Gizon bakarti bat bizi zen. Gizon makurra zen, baina haren bihotzak izugarri maite zuen basatia eta ehizak harrapatutakoa zen oro. Itxuraz, itsusia zen, baina edertasun handia sortzen zuen. Gure istorioa gizon horri buruzkoa da, baina pixkanaka-pixkanaka hura ezagutu zuen neska bati buruzkoa ere. Neskak ez zuen gizonaren itxura groteskoa bakarrik ikusten, barruan zeukana ere ikusten zion.

Istoria ezin da modu errazean eta segidan kontatu; iturri askotatik eta pertsona askorengandik bildu da. Pasarte batzuk gertaera bortitzak eta bitxiak ikusi dituzten gizonak kontatzen dituzte. Itsasoak berea den guztia berreskuratu du, eta lekua tapaki zimurtua balitz bezala estaltzen du. Eta hasieratik amaieraraino dena ikusi zuen hegazti handi zuria, hegoen amaieran luma beltzak zituen, bere jatorrizko iparraldeko lur ilun, izoztu eta isiletara itzuli da.



2.

1930eko udaberriaren amaieran, Philip Rhayader Aelder ibai-ahoan zegoen itsasargi abandonatura joan zen bizitzera. Itsasargia eta haren inguruko lokazti eta gatzagetako hektarea ugari erosi zituen.

Han bizi zen, eta han egiten zuen lan, bakar-bakarrik urte osoan. Margolaria zen; hegaztiak eta izadia margotzen zituen, eta, zenbait arrazoi zirela medio, gizartetik urrundu zen. Hilean bitan, Chelmbury herrixkara joaten zen janari bila, eta orduan argi ikus zitekeen zerk eraman zuen bakardadean bizitzera. Hangoek gaizki begiratzen zioten gizonaren gorputz makurrari eta aurpegi ilunari. Konkorduna zen, eta ezkerreko besoa elbarri zeukan, mehea zuen eta eskumutur inguruan okertua, hegazti baten atzaparraren itxuran.

Azkar ohitu ziren gizonaren gorpuzkera bitxira. Txikia, baina indartsua zen. Buru erraldoi, ilun eta bizarduna bizkarreko muinoa baino beheraxeago zuen. Begi distiratsuak eta atzapar itxurako eskuak zituen, eta "margolari bitxi hori, itsasargian bizi dena" esaten zioten.

Sarritan, itxuragabetasunak pertsonenganako gorrotoa sortzen du gizakion barruan. Baina Rhayaderrek ez zuen gorrotatzen; izadi osoa, animaliak eta gizakiak maite zituen, asko maitatu ere. Bihotza errukiz eta ulermenez beteta zeukan. Elbarritasuna menderatu zuen, baina ezin izan zuen gainditu itxuragatik jasaten zuen arbuioa. Berak ematen zuen amultsutasuna bueltan ez jasotzeak behartzen zuen isolamendura; inork ez zion ordainetan halakorik eman. Emakumeak uxatu egiten zituen. Gizona, ezagutu izan balute, pertsona atsegina irudituko zitzaiekeen. Baina bera ezagutzeko ahalegina egiten ari zirela pentsatze hutsak min ematen zion, eta ahalegin hori egiten zuen oro saihesten zuen.

Lokazti Handira etorri zenean, hogeita zazpi urte zituen. Bidaia asko egindakoa zen ordurako, eta ausart borrokatu zen mundutik urruntzeko erabakia hartu baino lehen. Mundu horretan ezin zuen beste gizonak bezala parte hartu. Upel itxurako bularrean artista baten sentiberatasuna eta emakume baten maitekortasuna giltzapetuta eduki arren, benetako gizona zen.

Txalupa bat, margolanak eta hegaztiak zeuzkan bere bakarlekuan. Txalupa bost metrokoa zen, eta trebetasun handiz gobernatzen zuen. Bakarrik, besteen begietatik urrun, ondo moldatzen zen esku okertuarekin. Sarritan, hagin sendoak ere erabiltzen zituen haizete indartsuetan belak zabaltzen zirenean.

Itsasadarrak eta itsasaldiek egiten zituzten errekek atzean utzi, eta itsasora joaten zen, egunak eta egunak pasatzera. Hegazti espezie berrien bila joaten zen, haiei argazkiak ateratzeko edo haiek marrazteko. Hegaztiak sarean harrapatzen ere trebe bihurtu zen. Harrapatu ondoren, bere estudiantik gertu zegoen itxiturako bildumara gehitzen zituen. Erreserba baten hasiera bihurtu zen.

Hegaztiei ez zien inoiz tiro egin, eta ehiztariei ez zien ongiatorririk egiten. Basatia zen guztiaren laguna zen, eta, horren truke, haien adiskidetasuna jasotzen zuen.

Urrian, Islandiatik eta Spitsbergenetik itxiturara hegan etortzen ziren antzarak izaten zituen, etxekotuta. Zerua iluntzen zuten multzotan iristen ziren, eta, inguruan, burrunba entzuten zen gainetik azkar pasatzen zirenean. Bular zuriko branta musuzuriak ziren: gorputza marroia, oin arrosak, lepo ilunak, aurpegi komikoak, aurrealde zuri nahasiak eta marra beltzez betetako bularrak zituzten. Espezie ugariatako ahate basatiak ziren: ahate txistulariak, basahateak, ahate buztanluzeak, zertzetak eta ahate mokoabalak.

Rhayaderrek azken lumak lotzen zizkien batzuei, geldirik gera zitezen. Huraxe zen neguaren hasieran etortzen ziren hegazti basatiei janaria eta babes hantzeak jakinarazteko seinalea eta ikurra.

Ehunka eta ehunka etortzen ziren, eta berarekin gelditzen ziren eguraldia epeldu arte, urritik udaberriaren hasierara arte. Orduan, iparraldera migratzen zuten berriro, izotz-lerrotik hegoaldera zeuden ugaltze-eremuetara.

Rhayader zoriontsu zen ekaitzetan, hotz handia egiten zuenetan, janari eskasia zegoenetan edo ehiztarien armek garrasi egiten zutenetan hegaztiak seguru zeudela jakinda. Pozten zuen, halaber, ezagutzen zutela eta berarekin fidatzen zirela ikusteak. Izaki basati eta eder haiek guztiek bere besoetan eta bihotzean hartzen zuten babes.

Iparraldeko deiari erantzuten zioten udaberrian, baina udazkenean itzultzen ziren, eta, orduan, garrasi eta karranka egiten zuten udazkeneko zeruan. Itsasargi zaharraren gainean, biraka hegan egiten zuten, eta, gero, lurreratu egiten ziren, berriro gizonaren gonbidatuak izateko. Rhayaderrek aurreko urteetatik gogoratzen eta ezagutzen zituen hegaztiak.

Eta horrek guztiak poztu egiten zuen, bazekielako, nolabait, haien barruan zeudela bera eta bere babeslekua. Hegaztiek ere bazekiten hori. Zerua iluntzen zenean eta

ipar haizeak jotzen zuenean, bazekiten harengana itzuliko zirela.

Gainerakoan, bihotza eta arima margolanetan isurtzen zituen, lurraldea eta lurraldeko izakiak margotzen zituenean. Gaur egun, haren margolan oso gutxi geratzen dira. Kontu handiz gordetzen zituen; itsasargian eta haren goiko biltegietan metatzen zituen. Ez zen konforme geratzen margolanekin; amore ematen ez zuen artista zen.

Baina merkatura iritsi diren gutxiak maisu-lanak dira; lokaztietan islatzen diren kolorez eta distiraz beteta daude. Hegaldiaren sentsazioa adierazten dute, eta ihiak mugitzen dituen goizeko haizetan hegaka ikusten dira hegaztiak. Bakardadea eta gatzez betetako hotzaren usaina margotzen zituen, lokaztien betierekotasuna eta adingabetasuna, izaki bizidun basatiak, egunsentiko hegaldiak... Beldurrak margotzen zituen aireratzen eta baita hegodun itzalak ere, gauetan ilargiarengandik ihesi.



3.

Azaroko arratsalde batean, Rhayader Lokazti Handira etorri eta hiru urtera, neska bat itsasargira hurbildu zen itsas hesitik. Zama zekarren besoetan.

Asko jota, hamabi urte izango zituen. Liraina eta lotsatia zen. Zikin eta txori bat bezain urduri zegoen. Baina, zikintasun haren azpian, ederra zen, lokazti-lamia bat bezain ederra eta misteriotsua. Saxoi petoa zen, gorputz sendokoa eta ilehoria; gorputza oraindik ez zuen buruarekin proportzioan; begiak sakonak eta urdin ilunak zituen.

Ikusi nahi zuen gizon itsusiaren beldur zen neska. Hainbat istorio kontatzen zituzten hari buruz: hango ehiztariek gorrotatu egiten zuten, beren zaletasuna eragozten zuelako.

Baina besoetan zeramanaren premia beldurra baino handiagoa zen. Neskak bazekien, zingiretan jakin bide zuen, itsasargian bizi zen munstroak magia egin zezakeela zaurituta zegoen oro sendatzeko.

Ez zuen Rhayader lehenago inoiz ikusi. Ia ihes egin zuen estudioaren atean agertu zen gorpuzkera iluna ikustean. Gizona neskaren urratsak entzutean agertu zen; buru ilun eta bizarduna zuen, konkorr beldurgarria eta atzapar itxurako esku okertua.

Neska gizonari so geratu zen, lokazti-txori bat bezala, hegan ihes egiteko prest.

Baina gizonak ahots sakon eta atseginez hitz egin zion:

“Zer duzu, neskato?”

Geldirik geratu zen neska, eta, gero, lotsati, hurbildu egin zen. Besoetan zeukana hegazti zuri handi bat zen, eta erabat geldirik zegoen. Hegaztiak odol orbanak zituen lumaje zurian, eta neskak, amantalean.

Neskak gizonaren besoetan jarri zuen hegaztia. “Aurkitu in det, jauna. Zauritua dao. Bizirik al dao?”

“Bai, uste dut baietz. Sartu, neskato, sartu”.

Rhayader barrura sartu zen, hegaztia besoetan. Mahai baten gainean jarri zuen, eta hegaztia ahul-ahul mugitu zen. Neskaren jakin-mina beldurra baino handiagoa zen: gizonari jarraitu zion, eta ikatz suak epelduta zegoen gela batera sartu zen. Hormetan zeuden kolorezko margolan ugariak distira ematen zioten gelari, eta hango usaina ezohikoa baina atsegina zen.

Hegaztiak hegadak harrotu zituen. Ondo zeukan eskuarekin, luma erraldoietako bat zabaldu zuen Rhayaderrek. Lumaren punta beltza ederra zen.

Rhayader, hegaztiari begira liluratuta geratu zen:
"Neskato, non aurkitu duzu?"

"Lokaztian, jauna, ehiztariak eoten dian lekuan. Ze ... ze da, jauna?"

"Elur-antzara da, eta Kanadatik etorri da. Baina nola arraio etorri da honaino?"

Ematen zuen elur-antzara izenak ez zuela esanahirik neskarentzat. Neskaren begi sakon eta urdin ilunek distira egiten zuten aurpegi mehe eta zikinean. Arreta handiz zegoen hegaztiari so.

Esan zion: "Sendatuko dezu, jauna?"

"Bai, bai" erantzun zion Rhayaderrek. "Saiatuko gara. Etorri, lagundu egingo didazu".

Apal batean, baziren guraizeak, bendak eta oholtxoak. Gizona izugarri trebea zen; atzapar okertua erabiltzen zuen gauzei heltzeko.

Gizonak esan zion: "A, tiro egin diote, gaixoa. Hanka apurtuta dauka, baita hegoen amaierako lumak ere, baina ez dago larri. Begira, azken lumak moztuko dizkiogu; horrela, benda jarri ahal izango diogu. Udaberrian, lumak haziko zaizkio berriro, eta hegaldatu ahal izango da. Gorputzari estu lotuko diogu, sendatu baino lehen ez mugitzeko, eta, gero, oholtxoa egingo diogu hankarako".

Beldurra ahaztuta, umeak liluratuta begiratzen zion gizonari, hegaztia sendatzen ari zen bitartean. Gizonak istorio zoragarri bat kontatu zion oholtxoa hanka apurtuari lotzen zion bitartean.

Hegaztia gaztea zen, ez zuen urtebete baino gehiago. Iparraldeko lurralde batean jaio zen, oso urrutiko lurralde batean. Ingalaterrarena zen lurralde hura eta itsasoa zeharkatu behar izan zuen haiengana iristeko. Hegoalderaino egin zuen hegan, elurrari, izotzari eta hotz latzari ihes egiteko. Ekaitz erraldoi batek harrapatu zuen, zurrunbiloka mugiarazi, eta astindu egin zuen. Ekaitza benetan beldurgarria izan zen, hegaztiaren hegoak baino indartsuagoa, edozein gauza baino indartsuagoa. Egun eta gauetan zehar, ekaitzak ez zion atsedetik eman, eta hari aurre eginez hegan egitea baino ez zuen izan hegaztiak.

Azkenean, ekaitzak indarra galdu zuenean, hegaztiaren sen fidagarriak hegoaldera eraman zuen berriro. Lurralde ezezagun batera iritsi zen, eta inoiz ikusi ez zituen hegazti arrotzez inguratuta aurkitu zuen bere burua. Azkenean, sufrimenduek ahituta, lokazti berde eta atsegin batean lurreratu zen atsedean hartzeko. Han, ehiztari baten tiroak jo zuen.

"Ongietorri garratza izan du bisita egin digun printzesak", amaitu zuen Rhayaderrek. "*Printzesa Galdua* deituko diogu. Eta egun batzuk barru, askoz hobeto sentituko da. Ikusten?". Patrikatik, zereal ale eskukada bat atera zuen. Elur-antzarak, begi borobil eta marroiak ireki, eta mokadu bat jan zuen.

Umeak, poz-pozik, barre egin zuen eta, bat-batean, non zegoen konturatu, eta beldurtu egin zen. Hitzik esan gabe, buelta eman, eta atetik ihes egin zuen.

"Itxaron, itxaron!", oihu egin zion Rhayaderrek, eta atarira joan zen. Han, gelditu egin zen; atearen markoan, haren gorputz handi eta iluna ikusten zen. Neska dagoeneko joana zen itsas hesitik, baina, ahotsa entzun zuenean, geldirik geratu zen, eta atzera begiratu zuen.

"Zein da zure izena, ume?"

"Fritha".

"Zer?", esan zion Rhayaderrek. "Fritha? Non bizi zara?"

"Arrantzaleekin, Wickaeldrothen". Auzoaren izena saxoien ahoskera zaharrean esan zuen.

"Itzuliko al zara bihar, edo etzi, Printzesa nola dabilen ikustera?"

Neska gelditu egin zen, eta, Rhayaderri hegazti basatiak etorri zitzaizkion berriro gogora, izuturik hegan atera aurreko istantean.

Baina neskaren ahots ahula entzun zuen: "Bai!"

Eta, orduan, joan egin zen, haizeak haren ile horia astintzen zuela.

Elur-antzara azkar sendatu zen. Negu betean, jadanik, herrenka zebilen itxituran kide zituen antzara mokolaburrekin, ez horrenbeste branta musuzuriekin. Rhayaderrengana hurbiltzen ikasi zuen hark deitzen zionean. Eta umea, Fritha, sarritan joaten zen bisita egitera. Rhayaderrenganako beldurra menderatuta zeukan. Liluratuta

zegoen urrutiko lurraldetik etorri zen printzesa zuri bitxiarekin. Lurralde hori arrosa kolorekoa zen³, Rhayaderrek erakutsitako mapan ikusi zuenez. Mapa horretan, hegazti galduaren ibilaldi ekaiztsua irudikatu zuten. Jaioterritik, Kanadatik, Essexeko Lokazti Handira etorri zen.

Ekaineko goiz batean, antzara mokolaburren talde batek ugaltzeko lurren dei indartsuari erantzun zion. Negua itsasargian pasatu ondoren, lodi eta ondo elikatuta zegoen hegazti taldea. Motel aireratu ziren, eta gorantz egin zuten, gero eta handiagoak ziren borobiletan. Haiekin batera joan zen elur-antzara, gorputz zuriak eta azken luma beltzek udaberriko eguzkitan distira egiten zutela. Kasualitatez, Fritha itsasargian zegoen. Bere oihuak Rhayader azkar aterarazi zuen estudiotik.

“Beitu! Beitu! Printzesa! Ba al dijoa?”

Rhayaderrek zerura begiratu zuen, eta desagertzen ari ziren tantoak ikusi zituen. “Ba, bai”, esan zuen, eta, konturatu gabe, neskaren hizkeran mintzatu zen. “Printzesa etxea dijoa. Entzun! Agur esaten ai da”.


Zeru garbitik, antzara mokolaburren garrasia entzun zuten, eta, hori baino ozenago, elur-antzararen nota garbiagoa. Tantoak iparralderantz joan ziren, “v” txiki-txiki bat osatuz; ondoren, “v” hori, txikitu, eta desagertu egin zen.

Elur-antzara joan zenean, Frithak itsasargira bisitan joateari utzi zion. Rhayaderrek bakardadea nolakoa zen ikasi behar izan zuen beste behin ere.

Uda horretan, gogoratzen zuena oinarri, margolan bat egin zuen. Ume lirain eta zikin bat agertzen zen margolanean; ile horia zuen, azaroko haizeak astinduta. Besoetan, zauritutako hegazti zuri bat zeukan.

³Garai hartan, Britainiaren Inperioko lurraldeak arrosaz margotzen ziren Ingalaterran inprimatzen ziren mapetan.





4.

Urriaren erdialdean, miraria gertatu zen. Rhayader itxituran zegoen, hegaztiei jaten ematen. Ipar-ekialdeko haize grisak jotzen zuen, eta lurrak amore ematen zion igotzen ari zen itsasaldiari. Itsasoaren eta haizearen zaratez gain, nota garbi eta altu bat entzun zuen Rhayaderrek. Iluntzeko zerura jaso zituen begiak, eta tanto txiki-txiki bat ikusi zuen. Gero, ametseko izaki zuri-beltz batek buelta bat eman zuen itsasargiaren inguruan. Azkenean, itxituran lurreratu zen, eta, garrantzitsua izango balitz bezala, gizonari hurbildu zitzaion, handik inoiz alde egin izan ez balu bezala. Elur-antzara zen. Ez zegoen zalantzarik. Rhayader hunkitu egin zen. Non egon ote zen? Kanadan ez; hori ezinezkoa zen. Ziur aski, uda Groenlandian edo Spitsbergen pasatu zuen, antzara mokolaburrekin. Gogoratu egin zen, eta itzuli.

Rhayader hurrena Chelburyra janari bila joan zenean, mezu bat utzi zion postetxeko langileari; mezuak harrituta utziko zuen. "Esaiozu Frithari, Wickaeldrothen arrantzaleekin bizi denari, Printzesa Galdua itzuli egin dela", esan zion.

Hiru egun geroago, Fritha, lehen baino altuago, oraindik ere modu baldarrean jantzita, lotsati hurbildu zen itsasargira, elur-antzarari bisita egiteko.

Denbora igaro zen. Lokazti Handian, itsasaldien altuerak, urtaroen iragaite motelak, hegaztien joan-etorriek eta, Rhayaderrentzat, elur-antzararen etorrerek eta irteerek markatzen zuten denbora.

Handik kanpo, mundua bor-bor zegoen, zalapartaka eta burrunbaka: mundua eztanda egitear zegoen, baita dena suntsitzear ere. Baina horrek ez zuen, oraindik, Rhayader kezkatzen, ezta Fritha ere. Erritmo natural eta berezian bizi ziren, eta umea gero eta ausartagoa zen. Elur-antzara itsasargira etortzen zenetan, neska ere etorri egiten zen, bisita egiteko eta, Rhayaderrek lagunduta, hainbat gauza ikasteko.

Elkarrekin joaten ziren txalupa azkarrean; Rhayader oso abila zen hura gobernatzen. Handituz zihoan hegaztien koloniarako hegaztiak harrapatzen zituzten. Gizonari esker, lokaztian hegan egiten zuten hegazti guztien ohiturak ikasi zituen umeak, kaiotik hasi eta ipar-belatzeraino. Batzuetan, Frithak janaria prestatzen zuen Rhayaderrentzat, eta pinturak nahasten ere ikasi zuen.

Baina, elur-antzara udako lurretara itzultzuten zenean, umearen eta gizonaren artean langa bat sortzen zela ematen

zuen, eta Fritha ez zen itsasargira joaten. Urte batean, hegaztia ez zen itzuli, eta horrek lur jota utzi zuen Rhayader. Gauza guztiak amaitu zitzaizkiola ematen zuen. Etenik gabe margotu zuen neguan, baita hurrengo uda osoan ere, eta ez zuen umea behin ere ikusi. Baina, udazkenean, berriro entzun zuen oihu ezaguna zeruan. Hazi egin zen. Hegazti zuri erraldoiak lur hartu zuen. Etorrera irteera bezain misteriotsua izan zen. Pozez gainezka, Rhayaderrek itsasontzia hartu, Chelmburyra joan, eta postetxeko langileari mezua utzi zion.

Bitxia izan arren, mezua utzi zuenetik, hilabete baino gehiago igaro zen Fritha itsasargian agertu arte. Rhayader, bere harridurarako, gauza batekin konturatu zen: neska jadanik ez zen umea.

Hegaztia, handik joan eta itzuli ez zen urtetik, gero eta goizago bueltatzen zen. Hain zegoen etxekotuta, Rhayaderren atzetik ibiltzen baitzen; estudioan ere egoten zen hura lanean ari zen bitartean.



5.

1940ko udaberrian, hegaztiak garaia baino lehen migratu zuten Lokazti Handitik. Mundua sutan zegoen. Bonbaketarien burrunbek eta marruek, leherketa danbadatsuek hegaztiak beldurtzen zituzten. Maiatzaren batean, Fritha eta Rhayader itsas hesian zeuden, elkarren ondoan. Azken antzara mokolabur eta branta musuzuri libreak itxituratik ateratzen ikusi zituzten. Neska garaia, liraina, airea bezain librea eta ederra zen. Gizona, aldiz, iluna, groteskoa, bizarduna eta buru handia. Zeruari so zegoen: haren begi ilun distiratsuak antzarek beren hegaldian sortzen zuten formari begira zeuden.

"Beitu, Philip", esan zion Frithak.

Rhayaderrek haren begiradari jarraitu zion. Elur-antzara airean zen, hego erraldoiak zabaldua, baina baxu zebilen hegan, eta, behin, haiengandik oso gertu pasatu zen. Une hartan, azken luma punta-beltzek laztandu egingo zituztela ematen zuen, eta hegaztiaren igarotze azkarra sentitu zuten. Itsasargiaren inguruan, buelta bat, bi eman zituen. Gero, lurreratu egin zen berriro antzara lotuak zeuden itxituran, eta jaten hasi zen.

"Ez dijoa!", esan zuen Frithak, ahotsean lilura agertuz. Ematen zuen hegaztiak, gertu pasatu zenean, neska sorgindu egin zuela. "Printzesa geatu ingo da!"

"Bai", erantzun zion Rhayaderrek; bere ahotsean ere, hunkidura nabaria zen. "Geratu egingo da. Ez da inoiz joango hemendik. Printzesa Galdua orain ez dago galdua. Bere etxea hau da orain, berak erabaki duelako".


Antzarak eragin zion xarma hautsi egin zen, eta, bat-batean, Fritha konturatu zen beldur zela. Neska beldurtzen zuten gauzak Rhayaderren begietan ikus zitezkeen. Gizonak neskari begiratzen zionean, gizonaren nahiak eta bakardadeak, eta haien artean zeuden esan gabeko gauzek, beldurtzen zuten neska. Sakonak ziren gauza haiek, gero eta sakonagoak.

Rhayaderren azken hitzak behin eta berriz entzuten zituen neskak bere barruan, gizonak berriro esan balizkio bezala: "Bere etxea hau da orain, berak erabaki duelako". Neskaren sen azkarrak, gizonaren barnean zeuden gauzak sentitu, eta ulertu egin zituen: gizonak, deformatua eta groteskoa sentitzen zelako, esan ezin zizkion gauzak. Normalean, gizonaren ahotsak lasaitu egingo zukeen, baina, orain, haren isiltasunak eta esan ez zizkion gauzek beldurra handitu zioten. Emakume-senak oraindik ulertu ezin zuen zera horretatik ihes egiteko esan zion.

Hauxe esan zion Frithak: "Jun, jun in behar det. Agur. Pozten naiz Printseza geatuko dalako. Orain ez zea hain bakarrik eongo."

Biratu eta azkar joan zen. Gizonaren "Agur, Fritha" mamu ahul bat bezala iritsi zitzaion belarrietara, lokaztiko belarren soinuak ia itota. Azken begirada emateko biratzera ausartu zenean, urrun zegoen. Rhayader itsas hesiaren gainean zegoen oraindik, tanto ilun bat zeruaren aurrean.

Neska lasaitu egin zen. Beldurra beste zerbaitek ordezkatu zuen: galera sentrazio bitxia zuen. Hain zen sentrazio zorrotza, une batez geldiarazi egin baitzuen. Orduan, motelago, aurrera jarraitu zuen, eta zeruari begira zegoen itsasargitik eta haren azpian zegoen gizonarengandik urrundu zen.





6.

Hiru aste baino gehixeago pasa ondoren, Fritha itsasargira itzuli zen. Maiatza amaitzear zegoen, eta eguna ere bai. Ordurako, iluntze luze eta horia ekialdeko zeruan zegoen zilarrezko ilargiari bide ematen ari zitzaion.

Itsasargirantz zihoala, Rhayaderrek esan bezala, elur-antzara benetan geratu egin ote zen jakin behar zuela esaten zion Frithak bere buruari. Beharbada, azkenean, joan egin zen. Baina, itsas hesian barrena zihoala, hegaztiaren berri jakiteko irrikan zegoen, eta, batzuetan, konturatu gabe, pausoa azkartzen zuen.

Frithak Rhayaderren argiontziko argi horia ikusi zuen nasa txikian, eta han zegoen gizona ere. Txalupa itsasgorak kulunkatzen zuen, eta Rhayader hura betetzen ari zen: urez, janariz eta brandy botilez. Neskaren urratsak entzun zituenean, biratu egin zen, eta neskak zurbil zegoela ikusi zuen. Gizonaren begi ilunak, normalean, atseginak eta lasaiak ziren, baina, orain, zirraraz bete ziren. Egiten ari zen esfortzuarengatik arnasa sakon hartzen ari zela ere konturatu zen neska.

Bat-batean, Fritha, asaldatu, eta elur-antzaraz ahaztu zen. "Philip! Bazuaz?"

Rhayaderrek etena egin zuen agurtzeko. Neskak inoiz ikusi ez zuen zerbait igarri zion aurpegian, distira eta begirada berezia.

"Fritha! Pozten naiz etorri zarela. Bai, joan egin behar dut. Bidaia laburra izango da. Itzuliko naiz". Ohikoa zuen ahots atsegina barruan eta isilean gordetzen zituen gauzek zakartu zuten.

Frithak galdetu zion: "Noa jun behar dezu?"

Orduan, hitzak jarioan atera zitzaizkion Rhayaderri. Dunkirkera joan behar zuen. 160 bat kilometroko bidaia izango zen, itsasoan zehar. Lurreko armada britainiar bat hondartzan harrapatuta zegoen, eta alemaniarrek iristear zeuden britainiarrek suntsitzeko. Portua sutan zegoen, eta egoera itxaropenik gabea zen. Rhayaderrek herrixkara janari bila joan zenean entzun zuen albistea. Gobernuaren deiari erantzunez, Chelburyko gizonak itsasora ateratzen ari ziren. Mugi zitezkeen atoiontzi, arrantza-ontzi eta ontzi guztiak Ipar Itsasoa zeharkatzen ari ziren. Soldaduak hondartzatik salbatu behar zituzten. Hondartzaraino iritsi ezin ziren gerraontzi eta garraio-ontzietara eraman behar zituzten, alemanen tiroetatik ahalik eta gizon gehien salbatzeko.

Frithak, entzun ahala, bihotza hiltzen ari zitzaiola sentitu zuen. Gizona txalupa txikian itsaso handira joango zela esaten ari zen. Bidaia bakoitzean, sei gizon eraman zitzakeen, beharbada zazpi. Bidaia asko egin zitzakeen hondartzaren eta ontzi handien artean.

Neska gaztea zen, landugabea, hitz gutxikoa. Ez zuen gerra ulertzen, ezta Frantzian gertatzen ari zena ere, ezta armada harrapatuarena ere, baina senak esan zion arriskua bazegoela.

"Philip! Jun in behar dezu? Ez zea itzuliko. Zeatik jun behar dezu zuk?"

Ematen zuen Rhayaderren asaldura lasaitu egin zela lehenengo hitz erreka bota ondoren, eta dena azaldu zion ulertzeko moduan.

Esan zion: "Ehiztariek harrapatutako hegaztiak bezala daude gizonak hondartzan uzkurtuta, Fritha, aurkitu eta babeslekura ekartzen genituen hegazti zaurituak bezala. Haien gainean, burdinazko belatz handiak, zapelatzak eta ipar-belatzak dabilta, eta ez daukate burdinazko harrapakin haietatik babesterik. Galduta, ekaitzak uxatuta eta jazarrita daude, duela urte asko elur-antzara zegoen bezala; orduan, lokaztietatik ekarri zenidan, eta sendatu egin genuen. Laguntza behar dute, maitea, gure hegaztiak laguntza behar izan duten bezala, eta, horregatik, joan egin behar dut. Egin dezakedan gauza bat da. Bai, egin dezaket. Behingoz, behingoz gizona izan naiteke, eta parte har dezaket".

Fritha Rhayaderri begira zegoen. Asko aldatu zen gizona. Lehenengo aldiz ikusi zuen ez zela itsusia edo deforma, oso ederra baizik. Gauzak antzaldatzen ari ziren Fritharen barnean, esan egin behar zituen, baina ez zekien nola esan.

"Zurekin jungo naiz, Philip".

Rhayaderrek ezetz esan zion buruarekin. "Ontzian egongo bazina, soldadu bat atzean utziko genuke, eta beste bat, eta beste bat. Bakarrik joan behar dut".

Gomazko berokia eta botak jantzi zituen, eta ontzian sartu zen. Eskuaz agurtu, eta zera esan zion: "Agur! Hegaztiak zainduko dituzu itzultzen naizen arte, ezta, Fritha?"

Frithak ere eskua erdi altxatu zuen. "Jainkoak lagun diezazula", esan zion, antzinako moduan. "Hegaztiak zainduko ditut. Jainkoak lagun diezazula, Philip".

Eguna ilundu egin zen. Ilargiaren zati baten, izarren eta iparraldeko distiraren argia zegoen. Fritha itsas hesiaren gainean geratu zen, eta txaluparen bela itsasadar zabaletik desagertzen ikusi zuen. Bat-batean, hegoen soinu azkarra hurbildu zen bere atzean zegoen iluntasunetik. Zerbait bere ondotik pasatu zela sumatu zuen. Gaueko argian, elur-antzararen hego zuri eta mutur beltzen distira ikusi zuen, baita aurrerantz makurtuta zeukan burua ere.

Hegaztia gorantz igo zen eta itsasargiaren gainetik hegan egin zuen. Orduan, erreka bihurriaren gainetik jarraitu zuen, Rhayaderren belarantz. Haizeak geroz eta indartsuago jotzen zuen, eta bela makurtzen ari zen. Hegaztia gizonaren gainean ibili zen bueltaka, itzuli zabal eta motelak eginez.

Bela zuria eta hegazti zuria denbora luzez ikusi ahal izan ziren.

“Zaindu zazu. Zaindu zazu”, xuxurlatu zion Frithak elur-antzarari. Azkenean, bietako bat ere ikusi ezin izan zuenean, biratu, eta motel eta burumakur itzuli zen Fritha itsasargi hutsera.



7.

Une honetan gure istorioa zatitu egiten da. Zati bat baimenarekin zeuden soldadu batzuek kontatu zuten Londreseko ekialdeko "Koroa eta Gezia" tabernan⁴.

"Antzara zen, antzara alu bat, egiatan", esan zuen Potton soldaduak, Maiestatearen Londreseko Musketari Erregimentukoak.

"Alafede!", esan zuen hankak gaizki zeuzkan artilleriako soldadu batek.

"Antzara bat zen, bai. Jock ere, gizon hau, han zegoen. Dunkirkeko kez beteriko zero zikin eta kirasdunetik jausi zen. Xuria zen, beltza zuen hegaletan, eta, bonbaketari bat bazala, bueltaka zebilen zeruan. Jockek erran zuen: 'Gureak egin dik. Heriotzaren aingerua iritsi duk.'

'Arraio!', erran nuen, 'Antzara madarikatu bat duk, Churchill⁵ mezu bat ekartzera etorri duk honat, ea hondartzan ongi pasatzen ari garen, hi. Seinale bat duk, hori duk, seinale madarikatu bat. Hemendik aterako gaituk, mutil.'

Dunkirken eta Lapannyren artean zegoen hondartza batean deskantsatzen ari ginen, uso madarikatu batzuk bazala, Victoria Lubetaren⁶ gainean bezala, alemaniarren tiroak hartzeko prest. Eta ederki jo gintuzten, gainera. Gure gibelean, ondoan eta gainean ziren alemaniarrek. Metraila eta lehergailurekin jo gintuzten, eta airetik tiro egiten ziguten hegazkinetatik.

Eta kostaldetik hurbil *Kentish Maid* itsasontzia zegoen, txangoak egiteko ontzi bat. Margate portutik hartzen nuen, udatan, aunitzetan; hogeita hamar penike balio zuen bidaiak bakoitzak. Hor zegoen, gure zain, hondartzatik kilometro eta erdira.

Hor ginen, hondartzan etzanda, madarikazioak erraten itsasontzira joateko modurik ez zegoelako. Stuka⁷ batek atakatu zuen itsasontzia, lehergailuak haren ondoan bota zituen, urak gora egin zuen, jauregiko iturriak bezala: ikuskizun ikaragarria izan zen.

⁴ Oso auzo umil batean daude, langileena.

⁵ Churchill Erresuma Batuko lehen ministroa zen Bigarren Mundu Gerran. Herria animatzeko bere diskurtsoak ospetsuak ziren.

⁶ Londonen dagoen Tamesis ibaiertzean dagoen leku ospetsua.

⁷ Alemaniako gerra hegazkin ospetsu bat.

Orduan, gerra ontzi bat hurbildu zen eta 'Ez, horrela ez duk eginen' erran zion Stukari, baina alemaniarren bertze hegazkin batek eraso zuen ontzia, eta jo egin zuen. Eta erre egin zen, nola erre ere! Hondoratu baino lehen erre zen. Kea eta usaina kostalderaino ailegatu ziren; dena horia eta beltza zen, eta hortik etorri zitzaigun antzara madarikatua. Hondartzan harrapatuta ginen eta antzara bueltaka zebilen, gure gainean.

Eta orduan, bat-batean, belaontzi ttiki bat agertu zen, lasai-lasai, aberats bat bezala Henleyn⁸ igande arratsaldean".

"Nor zen?" galdetu zion tabernan zegoen zibil batek.

"Bera! Guztiok salbatu gintuena! Metraila-ekaitzaren erdian egin zuen bidea, alemaniarren hegazkin baten azpian. Hegazkin hark hondoratu zuen hogeita hamar minutu lehenago Ramsgate portuko ontzia, gu salbatzen ahalegindu zena. Ura aparrez beteta zegoen, lehergailuek eta balek hautsia, baina hari berdin zion. Haren itsasontzian ez zegoen erretzeko edo lehertzeko petroliorik, eta balen artean mugitzen zen.

Sakonera ttikiko uretara etorri zen, sutan zegoen, gerra ontziaren keaz inguraturik. Gizon ttikia zen, iluna eta bizarduna; eskutzat, atzapar madarikatu bat zuen, eta, sorbaldan, konkorra.

Soka bat zuen ahoan, xuria eta distiratsua zen; bizar beltzaren artean ikusten zitzaion. Esku ona lemaren gainean zuen; okerrarekin, etortzeko keinuak egiten zituen. Eta haren gainean, bueltaka eta bueltaka, antzara madarikatua zebilen.

Jockek, gizon honek, erran zuen: 'Alafede, orain bai, dena amaitu duk. Deabrua gure eske etorri duk. Jo egin ditek eta hura ez duk ohartu.'

'Bai zera!' erran nion, 'Jainkoaren antza handigoa dik deabruarena baino'. Eta egia zen, ttikitan igandetan leitzen genituen liburuetako irudietan Jaunak hartzen zuen itxura zuen: aurpegi xuria, begi ilunak eta bizar beltza, bere ontzi eta guzti.

'Zazpi eraman ahal ditut bidaia bakoitzean' oihu egin zigun hurbildu zenean.

Gure ofizialak oihu egin zion. 'Hagitz ongi, mutil! Zuek, hurbilen zaretan zazpiak, sartu.'

⁸ Henley, Ingalaterrako oso herri aberats bat, arraun lasterketei esker ospetsua da.

Uretan ibili ginen bereganaino. Hagitz nekatua nintzenez, ezin nintzen ontziaren bazterretik igo, baina berak tunikaren lepotik heldu, tira egin eta 'Barrenera!' erran zidan. 'Goazen! Hurrengo!'

Eta sartu egin nintzen. Hagitz indartsua zen gizon hura! Orduan, bela paratu zuen; metrailak erabat zulatua zegoen, eta oihu egin zigun: 'Txaluparen beheko aldean egon, mutilak, beharbada zuen lagun batzuekin topo egingo dugu eta'.

Joan egin ginen, ni haren ondoan nintzen, popan. Soka bat hortzen artean zuen, bertze bat atzapar okerrean, eskuineko eskua lemaren gainean. Kostaldeko gibelean zeuden artilleriako kanoien balek busti gintuzten eta gizonak apar artean gidatu zuen txalupa. Eta hor zegoen antzara famatua, jira eta bira, oihuka haizearen ahotsaren eta alemaniarren arrabotsaren gainean, Morris⁹ bat Winchestereko¹⁰ ingurabidean bezala.

Antzara seinalea zela erran nion Jock-i. 'Begiratu, errukiaren aingeru madarikatu bat duk.'

Gizonak, soka hortzen artean lema gidatuz, irribarre egin zion antzarari, betidanik ezagutuko balu bezala.

Kentish Maid ontziraino eraman gintuen, buelta eman, eta bertze karga baten eske joan zen. Hainbat bidaiaria egin zituen arratsaldean eta arratsean: Dunkirke sutan zegoen, eta, horregatik, bazuen nahikoa argi. Ez dakit zenbat bidaiaria egin zituen, baina berak eta Thames Yacht Cluben ontzi batek eta Poole herriko salbamendu-txalupa batek guztiok salbatu gintuzten infernuko zulo hartatik, gizon bat bera ere galdu gabe.

Azken gizona ailegatu zenean, abiatu egin ginen. Itsasontzia berrehun lagunentzako zen eta zazpiehun ginen. Atera ginenean, han zegoen gizona, kasu egin zigun eta Dunkirke aldera joan zen, hegazia alboan zuela. Arraioa, bitxia izan zen antzara handi famatu hura hegaka ikustea, txalupari buelta eta buelta, suz argituriko aingeru xuri bat bezala, kearen aurrean.

Bertze Stuka batek atakatu gintuen bidaiaren erdian, baina pilotua gaupasa egina izango zen, eta ez gintuen jo. Goizerako, Ingalaterran ginen, salbu.

⁹ Garaiko auto marka bat.

¹⁰ Winchester Ingalaterrako hegoaldeko hiri txikia eta lasaia da.

Ez genuen inoiz jakin zer gertatu zitzaion gizonari, ezta nor zen ere. Bazituen konkorra eta txalupa, hori bai. Hagitz gizon ona zen lagun hura.”

“Jainko maitea”, esan zuen artillariak. “Antzara handi bat, batek daki!”



8.

Brook Kaleko ofizialen klub batean¹¹, armadako ofizial erretiratu bat, hirurogeita bost urtekoa, Dunkirkeko ebakuazioko esperientzia kontatzen ari zen. Keith Brill-Oudener komandantea zen. Goizeko lauretan esnatu zuten, eta, Limehouse auzoko atoiontzi okertu batean, Doverreko itsasartea zeharkatu zuen. Tamesis ibaiko gabarra lerro bat haraino tiratu zuen atoiontziak eta, soldaduz beteriko gabarra, lau aldiz itzuli zen Ingalaterrara. Azken bidaiari, tximinia bala batek zulatuta iritsi zen, eta, ontziaren ertzean ere bazegoen zulo bat. Baina komandanteak Doverreraino eramane zuen atoiontzia.

Ebakuazioaren azken lau egunetan alemaniarrek lehertutako Brixham eta Yarmouth herrietako hiru itsasontzi txikitatik atera behar izane zuen Armadako Erreserbako ofizial batek, galdegin zion: "Entzun al duzu noizbait antzara basati bati buruzko zurrumurru bitxiren bat? Hondartza guztietan kontatzen zen. Ekarri nituen gizon batzuek hari buruz hitz egin zuten. Antza denez, azken egunetan, Dunkirken eta La Pannen artean agertzen zen batzuetan. Hura ikusten zuena onik ateratzen zen azkenean. Halako zerbait zen".

"Bada..." esan zion Brill-Oudenerrek, "antzara basatia. Nik etxekotuta ikusi nuen bat. Oso esperientzia bitxia izan zen. Tragikoa ere bai, nolabait. Eta guretzat, zorionekoa. Kontatu egingo dizut. Hirugarren aldiz itzultzen ari ginenean gertatu zen. Seiak inguruan, txalupa abandonatu bat ikusi genuen. Barruan kapa bat edo gorpu bat zeuzkala ematen zuen. Eta hegazti bat zegoen karelean pausatuta.


Norabidea aldatu genuen eta, hurbilago geundenean, ondo begiratu genuen. Ene jainkoa! Gizon bat zen. Edo gizona izandakoa, gizagaixoa. Metrailak hil zuen. Itsusia izan zen hori ikustea. Aurpegia uretan zeukan. Hegaztia antzara bat zen, etxekotua.

Lasai-lasai hurbildu ginen, baina, gutako batek txalupara eskua luzatu zuenean, hegaztiak txistu egin zion, eta hegoekin jo zuen. Ezin genuen uxatu. Bat-batean, Kettering gazteak -nirekin zegoen-, hots egin, eta istriborra seinalatu zuen. Mina handi bat zegoen, ur gainean. Alemaniarren opari bat. Norabideari eutsi izan bagenio, berarekin talka egingo genukeen erdiz erdi. Abiatu egin ginen; mina azken gabarratik ehun eta hirurogei metrora utzi genuen, eta soldaduek errifleak erabili zituzten lehertzeko.

¹¹ Ingalaterrako elkarte aristokratiko asko Londonen Brook Kalean daude.

Berrero txalupara begiratu genuenerako, joana zen.
Hondoratua. Minatik atera ziren olatuek hondoratu zuten.
Baita gizona ere. Ziur aski, txalupari lotuta egongo zen.
Hegaztia, aireratu, eta inguruka ibili zen. Hiru aldiz
inguratu zuen lekua, hegazkin baten agurra balitz bezala.
Oso sentsazio bitxia izan zen. Orduan, mendebalderantz
abiatu zen. Oso zorte ona izan genuen txaluparaino
joateagatik, ezta? Hori kasualitatea, zuk antzara bat
aipatzea".





9.

Fritha bakarrik geratu zen Lokazti Handiko itsasargian. Lotuta zeuden hegaztiak zaintzen zituen. Ez zekien zeren zain zegoen. Lehenengo egunetan, itsas hesira joaten zen, eta itsasoari so egoten zen, baina bazekien alferrik zela. Geroago, itsasargiko biltegian ibiltzen zen. Han, Rhayaderren margolanak zeuden metatuta. Hango paisaia ilunaren une eta argi guztiak irudikaturik zituen margolanetan, baita han bizi ziren hegazti eder eta liluragarriak ere.

Haien artean, Rhayaderrek aspaldian buruz egin zion erretratua aurkitu zuen. Garai hartan, umea zen oraindik, lotsatia, eta haizeak ilea astintzen ziola azaldu zen Rhayaderren atarian, hegazti zauritua besoetan zuela.

Margolan hark eta han ikusi zituen gauzek hunkitu egin zuten, inoiz ezerk hunkitu ez zuen bezala. Rhayaderrek arima jarri zuen margolanean. Bitxia zen, baina hura izan zen elur-antzara margotu zuen azken aldia. Ekaitzek beste lurralde batetik ekarri zuten hegaztia, eta hegaztiak lagun bana ekarri zien gizon bakartiari eta neska gazteari. Azkeneko aldiz itzuli zenean, Frithari abixu emateko izan zen: ez zuen gizona inoiz berriro ikusiko.

Elur-antzara ekialdeko zeru gorriminetik jaitsi baino askoz lehenago, itsasargia inguratu baino askoz lehenago, Frithak bazekien. Senak esan zion Rhayader ez zela itzuliko.

Iluntze batean, ondo gogoratzen zuen nota altua entzun zuen Frithak zeruan. Hegaztiaren ahotsak ez zion itxaropen faltsurik eman. Une hura askotan bizi izan zuela ematen zuen.

Korrika joan zen itsas hesira, eta begiak altxatu zituen. Ez zuen itsasora begiratu, bai baitzekien ez zuela belarik ikusiko urrunean: zerura begiratu zuen, eta, handik, sutan zegoen zeruko arkutik, elur-antzara jaitsi zen. Orduan, neskak ikusten eta entzuten zuenak eta inguruan zuen bakardadeak barruan zeukan presa apurtu zuten: maitasunaren uholde ukaezina negarretan askatu zuen.

Izpiritu basati batek beste bati egin zion dei. Neska hegazti handiarekin hegan zebilela zirudien, iluntzeko zerura igo, eta Rhayaderren mezua entzuten ari zela.

Zeruak eta lurrak dar-dar egin zuten, eta neskak jasan zezakeena baino gehiago izan zen. "Fritha! Fritha! Fritha, maitia! Agur, maitia!" Elur-antzararen azken luma beltzek, mezua neskaren bihotzeraino eramane zuten, eta bihotzak erantzun egin zuen: "Philip, maite zaitut".

Une batez, Frithak uste izan zuen elur-antzara lurreratu egingo zela itxitura zaharrear. Antzara lotuek farfuilatu egin zuten, ongiatorria emateko. Baina, gertu pasatu ondoren, aireratu egin zen berriro. Kiribil basati eta eder bat egin zuen itsasargi zaharraren inguruan, eta gora egin zuen hegan.

Hegaztiari so, Frithak ez zuen elur-antzara ikusi, Rhayaderren arima baizik. Neskari agur esan zion, betiko desagertu baino lehen.

Orain, neska ez zebilen hegan, lurrean baizik. Besoak zeruraino luzatu zituen, eta oin-puntetan jarri zen, zerua ukitu nahi izan balu bezala. Oihu egin zuen: "Jainkoak lagun diezazula! Jainkoak lagun diezazula, Philip!"

Fritharen negarrak amaitu egin ziren. Denbora luzez egon zen isilik elur-antzara joan ondoren. Orduan, itsasargira sartu zen, eta Rhayaderrek egin zion margolana hartu zuen. Besoetan besarkatuta, etxerantz joan zen itsas hesi zaharrear barrena.



10.


Iluntzetan, handik aste askotara, Fritha itsasargira joaten zen, eta lotuta zeuden hegaztiei jaten ematen zien. Goiz batean, oso goiz, egunsentiko erasoaldian parte hartzen ari zen pilotu alemaniar batek helburu militartzat hartu zuen itsasargi abandonatua. Haraino jaitsi eta, garrasika ari den burdinazko belatza balitz bezala, lehergailuak jaurti eta den-dena infernura bidali zuen.

Iluntze hartan, itsasargira joan zenean, itsasoak apurtutako hesia zeharkatu eta guztia urez estali zuela ikusi zuen Frithak. Erabateko hondamena zen. Hegaztiak ez ziren itzultzera ausartu. Kaio izukaitzak baino ez zebiltzan hegan. Haien ahots kezkarriak zabaldu ziren lehen dena egon zen lekuan.



“Lagunek laguntzen gaituzte, laguntzen digute...”

Ane Urrestarazu, Aitziber Alonso, Uxue Alberdi, Ander Trigos, Itxaso Goikoetxea, Amaia Lasheras, Eneko Etxeandia, Ana Senar, Iñigo Martinez, Inazio Mujika, Iñaki Azanza, Eduardo Delgado, Lierni Elortza, Elen Strotz, Garazi Arteagoitia, Mirari Garcia...



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

<http://www.booktegi.eus/>